

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak 40.000 euro erabiliko ditu Lehen Mailako Arretan eta Osasun Mentalean ikertzeko

Laguntzak eskuratzeko epea azaroaren 14an amaituko da

Lunes, 13 de octubre de 2014

Osasun Departamentuak 40.000 euroekin finantzatu du ikerketako bi proiektu egiteko: bata Lehen Mailako Arretan, paziente kronikoen eta patologia anitzekoen bizi-kalitateari buruzkoa, eta bestea, Osasun Mentalean, suizidatzeko saiakerak egin dituzten pertsonen arreta eta laguntza-jarraipenari buruzkoa.

[NAO](#)ak (200. zk., urriak 13) gaur argitaratzen dituen [laguntzak](#) Osasun Mentaleko eta Lehen Mailako Arretako profesionalentzat dira. Haiek eskuratu ahal izateko, ikerketa-taldeek diziplina anitzekoak izan beharko dute eta hainbat profil profesional barneratu. Hala, Lehen Mailako Arretako proiektuaren kasuan, ekipoa hokako hauek osatuko dute gutxienez: familia eta komunitateko medikuntzako espezialista bat, erizaintzako profesional eta gizarte-langile bana; Osasun Mentaleko proiektuari dagokionez, psikiatra, psikologoa eta erizaintzako profesional batek. Bietan, ikerlari nagusia, lan-arloan, dagokion laguntza-zuzendaritzakoa izango da.

Diru-laguntzaren zenbatekoa, 20.000 euro proiektu bakoitzerako, honako gastu hauek ordaintzeko erabiliko da: langile teknikoak kontratatuzeko, taldekideen askatze partziala ekarriko duten ordeko langileak kontratatuzeko, material suntsikorretarako, zerbitzu profesionalak kontratatuzeko, bidaiatzeko eta bilkura zientifikoetan izateko, besteak beste. Ikerketa-taldeko kideek ez dute inolako ordainsaririk jasoko proiektuaren kargura. Azterketek, gehienez ere, 12 hilabetez iraungo dute.

Laguntzak eskuratzeko epea azaroaren 14ra arte zabalik izango da, eta eskaerak erregistro elektronikoen bidez aurkeztu beharko dira, edo bestela, Osasun departamentuko Ikerketa, Berrikuntza eta Osasun Prestakuntzako Zerbitzuan (Irakaskuntza Pabiloia, NOGko barrutia), edo legean ezarritako [beste](#) edozein lekutan.